



## **GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA**

**Tokia eta eguna:** Leioan, 2011ko maiatzaren 23an

**Hasiera-ordua:** 12:00etan

**Amaiera-ordua:** 13:30ean

### **Presidentea:**

Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

### **Idazkaria:**

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetza Bulegoko teknikaria)

### **Bertaratu direnak:**

#### **Kontseilukideak**

Luis Guridi jauna

Joseba Sainz de Murrieta Mangado jauna

Joseba Zuazo Olozaga jauna

Christian Celis González jauna

María José Maeztu andrea

Maria José Mijangos andrea

Imanol Zubero jauna

#### **Kontseilukide ez diren pertsonak:**

Marta Macho andrea

Aitxiber Zallo andrea

### **Ez bertaratuak:**

Amaia Maseda andrea

Anaut Patterson Mendiola jauna

Koldo Unceta Satrústegi jauna

Eneko Calle jauna

### **Gai-zerrenda:**

1. Aurreko aktak onestea
2. Garapenerako Unibertsitateen Lankidetza Jardunaldiari jarraipena emateko lantaldeen bileretan ateratako ondorioak.
3. Galderak eta eskaerak.



## **Akta**

Iratxe Amiano andreak (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) hasiera eman dio bilerari. Bileraren hasieran, Iratxe Amiano andreak (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) bilerara etortzea eskertu die bertaratuei, eta gai-zerrenda aurkeztu du.

### ***Lehen aztergaia: Aurreko aktak onestea***

Lankidetzako Kontseiluak **2011ko apirilaren 11n** egin zuen bileraren akta onetsi da.

### ***Bigarren aztergaia: Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzaren Jardunaldiari jarraipena emateko lan-taldeen bileretan ateratako ondorioak.***

**1. tailerra: Erakundeen konpromisoa eta barneko kudeaketa** Luis Guridik, tailerreko koordinatzaileak, taldearen lehen topaketan atera zituzten ondorioen berri eman du. Taldea Gipuzkoako Campusean bildu zen. Bilera horretan 5 pertsona egon ziren (irakasle eta ikertzaileen taldeko 2 pertsona eta AZLko 3 pertsona). Honako ondorio hauek atera zituzten:

- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko langileak zein baliabideak barneztatuta daudelako kezka adierazi zen.
- Arlo horretan ahaleginak bateratu eta koordinatu beharra aipatu zen.
- Garapenerako lankidetzari buruz antolatzen diren ia bilera eta jarduerak guztiak Bizkaiko Campusean egiten dira. Hortaz, horri buruzko bilera eta jarduerak gehiago beste Campusetan ere egiteko eskatu zen.
- Garapenerako lankidetzaren parte hartzeko mekanismo gehiago eta mekanismo horiek hedatzeko eskatu zen.
- AZLko langileek aldarrikatu zuten denbora izatea garapenerako lankidetzari buruzko jardueretan parte hartzeko, euren lan-ordutegiak oso malgutasun gutxi baitu.
- Garapenerako lankidetzari buruzko gaietan prestakuntza eskatu zen, eta bereziki, AZLko langileek eskatu zuten.

**2. tailerra: Irakaskuntza eta Ikerkuntza** Imanol Zuberok, tailerreko koordinatzaileak, jakinarazi du taldea ez dela oraindik bildu, agenda-arazoak direla eta.

**3. tailerra: Boluntariora, zabalkuntza, sentsibilizazioa eta presentzia**



**jendeariean.** Eneko Callek, tailerreko koordinatzaileak, arazo pertsonalak direla-eta, ezin izan da bilerara etorri. Dena den, posta elektronikoz jakinarazi du taldeak oraindik ez duela bilera egin.

**4. tailerra: Teknologia-tailerra.** Maria José Mijangosek, tailerreko koordinatzaileak, kontseilukideei banatu die taldeak egin duen lehen bileraren akta (1. eranskina), maiatzaren 11koa. Aktan jaso dira atera zituzten ondorioak.

***Bosgarren aztergaia: Galderak eta eskaerak.***

- **Garapenerako Lankidetzaren arloko Unibertsitateen Jokabide Kodearen** 1.000 aleko tirada bat egitea erabaki da. Kodean ez da ezer sartuko edo aldaketarik egingo, eta aurreko aldian argitaratu zen kode bera banatuko da.
- Bilera monografiko bat, Garapenerako Lankidetzaren arloko Plan Zuzentzaileari buruzkoa, ekainaren amaieran (ekainaren 30ean) egitea erabaki da.
- Bilera prestatze aldera, beste Unibertsitate batzuek garapenerako lankidetzaren arloan egin dituzten plan zuzentzaileak biltzea erabaki da. Plan horiek kontseilukideei bidaliko zaizkie, eta Kontseiluaren WEB gunean argitaratuko dira, zehazki, lan-dokumentuen atalean.
- UPV/EHUko 0 Diagnostikoa, garapenerako lankidetzaren arlokoa, itzultzeko bidaltzea, eta WEB gunean argitaratzea erabaki da.

**Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.**

Presidenteak sinatua eta ontzat emana

Presidentea: Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)



## I. ERANSKINA

### **Garapenerako Lankidetz Teknologia-tailerra**

Bilera-akta

Eguna: 2011-05-11

Lekua: Informatika Fakultatea (Donostia)

Bertaratuak:

- Iñaki Alegría
- Maria José Mijangos
- Anaut Patterson
- Pepe Rivadeneyrak bertaratu ezina adierazi du.

### **Garapena**

#### **1) Tailerraren eraketa eta helburuak**

- Bilera honetan hasi da Teknologia-tailerra, UPV/EHUko Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren emaitza.
- Hauxe da tailerraren helburu nagusia: “Informatika-tresnak sortzea, unibertsitate-kideek parte-hartzeko erraztasun handiagoa izan dezaten, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzari buruzko bizipenak trukatu eta partekatzeko”.
- Tresnen bitartez “parte-hartzea errazagoa” izan daitekeela zehaztu da, baina “parte-hartzea sustatzea” tailerraren helmenetik kanpo dagoela. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa litzateke dinamizatzaile edo sustatzaile bat. Agian, Komunikazio Zientzien ikasle batek produktua “saldu” lezake.
- Laburbilduz, webgune bat eskaintzeko asmoa dago, UPV/EHUko Garapenerako Unibertsitate Lankidetzarako erreferente dinamikoa izan dadin; eta EHU-KUD behin-behineko izena eman diogu.
- Gune horretan gizarte-sarea gehiago islatuko da, garapenerako unibertsitateen lankidetzaren marko zehatza baino.
- Ez dago zertan itxaron gunea primeran eraikita izan arte. Etapaz etapa egin daiteke aurrera. Komeni litzateke EHU-KUD gunearen lehen bertsioa 2011ko urrian izatea, nahiz eta ondorengoko bertsioetan aplikatzeko hobekuntzak proposatuak izan.

#### **2) Erabiliko diren tresnak**

- VgTIC-ek unibertsitate-kideei eskuratuko dizkien teknologia-baliabide berriak erabiltzea. Zehazki, Liferay abiaraziko da. Erakundearen webgunea [www.ehu.es](http://www.ehu.es) kudeatzeko tresna berria da, eta mailaz maila ordezkatzeko du gaur egun erabiltzen den baliabidea. Software libreko tresna da, lankidetzaren lanerako sortua; web 2.0ko ingurunean aritzen diren erabiltzaileen komunitateetan oinarritua, hain zuzen ere. Hortaz, foroak, wikiak, blogak, .... barnean hartzen ditu, eta haietako bat ere ez dauka gaur egungo tresnak.
- Lehen analisia egin da eta badirudi datu-baseen kudeaketa falta zaiola.
- Teknologia-tailerrarentzat sarbide pilotua eskatu da, baliabideak aztertzeke aukera edukitzeko.



- Edonola ere, ez diogu egoki iritzi tailerrean informatika-tresnak sortzeari, hau da, KUD webguneko beharren neurrirako programazioa egiteari.

### 3) Pertsonak

Hasierako taldean pertsona gutxi daudela egiaztatu da; kideek ideia asko eta dinamismo handia izan arren, ez dute denbora handirik. Hala eta guzti, norberak adierazi du lan-taldean zertaz ardura daitekeen.

- Iñaki  
Hamabost egunean behin tailerraren aurrerapena gainbegiratzeaz bera arduratuko dela eskaini du.  
Ikasleak tailerrari atxikitzen saiatuko da.
- María Jose  
Egitasmoa bultzatzeaz bera arduratuko dela eskaini du, gehienez ere urria arte.  
Lankidetzaren webgunearen lehen diseinua egiten saiatuko da.
- Anaut  
Egitasmoa ikasleen elkarteekin koordinatzen saiatuko da. Hasiera batean, BIONATUR, ISF-MGI eta Psikologia elkarteekin jarriko da harremanetan, garatuz joango den webgunea haiek aztertu, eta *feedbacka* eman dezaten.  
Egitasmoari atxikitzeko beka bat lortzen saiatuko da.

### 4) Webgunearen edukiei buruzko euri-jasa

- Unibertsitate-kide guztiei, oro har, honako hauek interesatzen zaizkie:  
Nor da nor KUDen?  
Pertsona-direktoria: EHU-KUD komunitatea:  
Non gaude?  
Mapa interaktibo batean era grafikoa adieraziko da EHU-KUD non dagoen munduan.
- Horrez gain, 0 Diagnostikoan jasotakoari jarraituta, honako jarduerak hauen berri emango da:  
Prestakuntza eta irakaskuntza
  - Graduondoko ikastaroak
  - Praktikak eta karrera-amaierako proiektuak
  - Gradu irakasgaiak
  - Ikastaro monografikoakIkerkuntza
  - Doktore-tesiak
  - Ikerkuntza-proiektuakGarapenerako unibertsitate-lankidetzari buruzko proiektuak eta jarduerak  
Zabalkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak
- Honako hauek gehitu dakizkieke 0 Diagnostikoan bildu diren jarduerari:  
KUD instituzionala
  - Teknologia transferitzea
  - Birziklatzea
  -
- Horrekin batera, ikasleei honako hauek ere interesa dakizkieke:  
Non hartu parte



Poltsa batean izena ematea

Bestelako informazioa:

- Ikasketa-bidaia solidarioak
- 
- Unibertsitate-kide guztiei, oro har, honako hauek interesa dakizkieke:
  - EHU-KUD komunitateari eta haren jardueri buruzko informazioa
  - Jakintza-arlo bereko lagunekin harremanetan jartzea
  - EHU-KUD komunitatea integratzea
  - Twitter bezalako bisore baten bidez komunitateari buruzko albistek jasotzea
  - Webguneko aldizkarian harpidetzea.
  - KUD webguneko atal bati buruzko albistek eta berriak soilik jasotzeko harpidetzea.
  - Lotura interesgarriak: beste unibertsitate batzuetako Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzak sailarekin, Behatokiarekin, ...
- EHU-KUD komunitate-kideei baimena eman dakieke jardueri buruzko informazioa argitara dezaten.

### 5) Tailerraren jarraipena

- Tailerraren hurrengo bilera Kontseiluaren maiatzaren 23ko bileraren ostean egitea, lehen ekarpen horiei buruz duen iritzia jaso ondoren.
- Beste unibertsitate batzuek garapenerako unibertsitate-lankidetzak lantzeko dituzten elkarlan-guneak aztertzea.
- Observatorio CUD (Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzak Behatokia): [www.ocud.org](http://www.ocud.org)
- Ezagunak diren eta antzeko helburuak dituzten beste ekimen batzuek aztertzea: [redespierta.com](http://redespierta.com)